

GIL 67 Torca del Carlista



Ranero mendietako kareharrizko mendigunea; han dago Torca del Carlista.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 15' 41,64" N

Long.: 3° 23' 27,40" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 468.270,31 m

Y: 4.789.936,29 m



Nola iritsi

Balmasedatik, joan Karrantzaraino BI-630 errepidean. Bidegurutzean, hartu Ranero auzoranzko BI-4679 errepidea. Herria pasatu eta bi kilometro ingurura dago Pozalaguako leizerako sarrera. Torca del Carlistaren sarrera Ranero haitzen goialdean dago, eta, lurra irregularra denez eta seinalerik ez dagoenez, komeni da GPSa erabiltzea.



Torkaren tamainaren erreproduzioa.



Torkara sartzeko galeria bertikala.



Torkaren barneko aretoetako baten itxura.

GILaren deskribapen laburra

Armañongo Parke Naturaleko inguru babestu bat da Torca del Carlista (2006). Ranero haitzetako Pico del Carlista mendian du sarrera, 712 metroko garaieran. Sarrera hori 60 bat metro luzeko leize bat da, hodi-formakoa, eta 4 m luze eta 1 m zabaleko ahoa du. Sarreraren bukaeran, Jon Arana Gela Handia irekitzen da (1958an zapaldu zuten lehen aldiz; Jon Aranak, hain zuzen); 500 m luze, 230 m zabal eta 125 m garai da punturik handiengan.

Europako barrunberik handiena eta munduko bigarrena da torka, eta askotariko formazio espeleotemikoak ditu barruan, hala nola estalaktitak, estalaktita eszentrikoak, estalagmitak, zutabeak eta banderak. Kretazeoko kareharri urgondarren barruan dago troka. Kareharri horiek itxura masiboa dute, eta ingurune azpitropikaleko sakonera txikiko plataformako fosil ugari dute (koralak eta errudistak).

Torka ez dago ikusgai edozeinentzat, sarbide zaila baitu eta prestakuntza espezifiko behar baita han sartzeko.

Behatzeko punturik onena

Barrunbearen barrualdetik. Zailtasun handiko jaitsiera espeleologikoa.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL16, GIL17, GIL18, GIL 64, GIL 107, GIL 138, GIL 144, GIL 145, GIL 146.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 61, GIL 65, GIL 66, GIL 64, GIL 68.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Ezin da sartu koban.				

Bibliografia espezifikoa

- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/60-I-III.pdf>
- <http://www.sociedadalfonsoantxia.org/torca%20del%20carlista.pdf>